



Josebe Amondarain, Ikasbide Kultur Elkarteko kidea.

Amara Berri, San Joan jaietako ekitaldi mordoaz berotuta

Hasiera emango dio txupinazoak San Joan jaietako gaur, 19:30ean, Probestu plazan. Urtero gisa, Ikasbide Kultur Elkarteak hainbat jarduera antolatu ditu, eta aurtengo indargunea gazteak izan dira.

T&A_Andrea Bosch Alfaro

San Joan jaietaz disfrutatzen dugu Amara Berri. Egitarau zabala antolatu du aurten, baita ere, Ikasbide Kultur Elkarteak, eta egun okupatuak izango dituzte San Joan gaueko aurreko asteburuan. Gaurkoan, urteroko legez, jaietako hasiera ospatuko dute txupinazoarekin, 19:30ean, Probestu plazan.

Hala, txokolate jate eta barre algarak lagunduta, 50 urte inguru dituen Txabola Sotoa irekiko dute eta, asteburuan zehar,

hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute auzotarrek eta gerturatu diren donostiarrek.

Ikasbide Kultur Elkarteko kide den Josebe Amondarainek nabarmendu du, pozez, auzoko gazte gehiagok antolaketan parte hartu dutela eta honek onurak ekarri dituela: «Berrikuntzak daude, eta bakarrizketaz eta futbitoaz gain, lehenengo aldiz eraso matxistei aurre egiteko protokolo feminista gurera ekarri dute», azaldu du jai batzordeko kideak.

Halaber, Amondarainek gazteek horrelako espazioetan parte hartzearen garrantzia mahaigaineratu du, eta honek «berrikuntzekin batera, euskal kulturarekin eta ohiko jarduerekin etorkizuneko jarraitzeko» aukera bermatu egiten duela gehitu du.

Suak eta ilusioak

Gaur iluntzean, kontzertuak eta zezen suzkoa elkartuko dira plazan, baina indarrak gorde beharko dituzte auzotarrek; izan ere, hurrengo egunetan dianak, kirol eta janari txapelketak, taletarrak, karropoteoa, Oihan Vegaren eta euskal dantzen emanaldiak, bertsolariak eta kantujirak antolatu dituzte Amara Berrikoek.

Ekainaren 23an, igandean, San Joan gaua ospatuko dute Gaskako aparkalekuan, eta urteko sekretuak eta azterketak erretzeko aukera izango dute. Prest dade auzotarrak indarrez heltzeko ekaina bukaerari, eta «ilusioz» antolatu dituzte jarduerak: «Gure beldur bakarra eguraldia da, baina gure esku dagoen guztia prest dugu», amaitu du Ikasbide Kultur Elkarteko kideak.

Egitaraua

EKAINAK 14, OSTIRALA

18:30ean:

Txokolate jana eta haur jolasak.

19:30ean:

Txupinazoa eta pin entrega.

19:45ean:

Txabol sotoaren irekiera.

20:00etan:

Bakarrizketak: Maria Blanco eta Manex Astigarra.

21:00etan:

Herri afaria (pintxoak eta bokatak).

21:30ean:

Kontzertua: Ekeko y el perro.

22:45ean:

Zezensuzkoa kalean zehar.

23:00etan:

Kontzertu sorpresa.

EKAINAK 15, LARUNBATA

11:00etan:

Diana auzotik zehar.

11:00etan, Ferrerias plazan:

Futbito txapelketa (16 urtetik gorakoentzat).

12:30ean:

Haur eta helduentzako toka txapelketa.

13:00etan:

Paella txapelketa (14 partaide gehienez).

14:00etan:

Herri bazkaria: paella, entsalada, edariak, kafea eta postrea.

16:30ean:

Mus txapelketa 4 erregetara.



17:00etan:

Osaba untxia eta kolotearen abenturak txotxongiloen emanaldia.

17:00-19:00:

Tailerrak, puzgailuak eta jolasak Amarako Haurtxoko eta Gaztelekuaren eskutik.

18:00etan:

Karropoteo auzotik zehar.

20:30ean:

Haurrentzako disko festak Oihan Vegaren eskutik.

21:00etan:

Herri afaria (pintxo eta bokatak).

22:30ean:

Zezensuzkoa auzotik zehar.

22:40ean:

Oihan Vega DJ emanaldia.

EKAINAK 16, IGANDEA

10:30ean:

Diana auzotik zehar.

11:00etan:

Haurren Euskal Dantza emanaldia, Ikasbide Ikastola eta Ikasbide kultur elkartearen eskutik.

13:00etan:

Tortila pataten lehiaketa (etxetik ekarria).

Bertsolariak: Peru Aiartza,

Libe Goenaga, Andoitz Urdapilleta eta Asier Iburguren.

14:00etan:

Herri bazkaria: pikoteo, kaldereta, postrea, edaria eta ogia.

16:00etan:

Euskal musika zuzenean Juanluren eskutik.

Haurrentzako futbito txapelketa 3x3.

18:00etan:

Sari banaketa.

EKAINAK 19, ASTEAZKENA

19:00etan:

Kantujira auzotik zehar, Amara Kantuzen eskutik.

EKAINAK 23, IGANDEA

22:00etan, Gaskako aparkalekuan:

San Joan sua.

22:45ean:

Zezensuzkoa.